



PAPERA

121.500 orri

KONTSUMOA

Aurten, irailera arte, guztira **121.500 orrialde** kontsumitu dira Atezaintzaren, Idazkaritzaren eta Dekanotzaren artean, hau da, aurreko aldi berean baino **69.000 orri gutxiago**.

Beharakada nabarmena da; izan ere, telelanaren eta konfinamenduan zehar jarduera gehienak online egitearen ondorioz, paper gutxiago kontsumitu da. Horrez gain, modalitate misto berriak paper gutxiago kontsumitzea eta eduki digitalak gehiago erabiltzea sustatzen du.

1.290 kg

BIRZIKLAPENA

Iaz, irailera arte, papera bildu eta birziklatzeaz arduratzen den Beotibar SL enpresak **7.072 kg** bildu zituen.

Aurten, irailera arte, **1.290 kg** baino ez ditu bildu. Enpresa hori ez da etorri papera biltzera irailera arte, ikastegian izan den jarduera urria dela eta.

ZINEMA IKUSEZINA 2020



Aurten, Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 12. edizioa egingo da.

Urriaren 15etik 22ra bitartean izango da. Jaialdi hori urtero egiten da, eta aniztasunez eta konpromiso sozialez beteriko zinema bat erakustea du xede.

Denbora gutxian, ezinbesteko hitzordu bilakatu da gai hauekin lotutako kontuak sakonago landu nahi dituzten guztientzat: **garapenerako lankidetzaz, gizartea eraldatzeko hezkuntza, giza eskubideak, genero berdintasuna, kulturartekotasuna, elkartasuna, etab.** Izan ere, jaialdi horrek konpromiso argia du kulturarteko giza garapen bidezkoa eta jasangarria lortzearekin.

Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Jaialdiak hausnartzeko eta eztabaidatzeko gonbidapena egiten dio gizarteari, oro har, eta bereziki Bigarren Hezkuntzako ikasleei –horiek dira film gehien ikusten dituztenak–. Eta gonbidapen hori modu bidezko batean egiten du, fikziozko obren, dokumentalen eta animazioen bidez gizateriaren kausen bozeramaile bilakatu diren zenbait komunikatzaileen bitartez.

Aurten, **46 herrialde**ren **84 film** emango dira.

Hona hemen aurtengo edizioari buruzko informazio gehiago <https://www.kcd-ongd.org/>

Jaialdiko sailetako bat Invisible Express izenekoa da, eta **UPV/EHUko ikasleei** zuzenduta dago. **Fakultateko ikasleek** sail interesgarri horretan parte hartu ohi dute, zeinetan gehienez hiru minutuko film labur bat sortu behar izaten baita egun gutxitan. Iaz, *"Ice, Ice... Maybe"* film laburra izan zen irabazlea, eta *"Sin Plan B"* lanak lortu zuen publikoaren saria.

Hemen ikus ditzakezue:

Ice, Ice... Maybe: <https://youtu.be/s1Rxzayp9Lc>

Sin Plan B: https://youtu.be/kB_Uj82uQVM

ENERGIA AURREZTU

Guztiok lagun dezakegu kontsumoa murrizten, gomendioak jarraituz eta hainbat ohitura aldatuz.

01.

Zure monitorean pantaila-babesa edukitzeko aukera eginez gero, beltz-kolorekoa aukeratu. (beste diseinu batzuek energia gehiago kontsumitzen baitute).

02.

EZ UTZI ATEAK EDO LEIHOAK ZABALIK berogailua piztuta dagoenean.

03.

ESKAILERAK IGO ETA JAITSI. Energia aurreztuko duzu eta osasunean irabaziko.

04.

Balia zaitez eguneko argiaz. Soilik beharrezko argiak piztu.

05.

Itzal itzazu argiak ikasgeletatik eta aretoetatik ateratzean, ondoren erabiltzeko asmorik ez baduzu. Salbuespena: gelara 15 edo 20 minutu baino lehenago itzultzeko asmoa izanez gero, hobe da argiak piztuta uztea.

06.

Itzal ezazu erabat ordenagailua, 30 minutuz baino gehiagoz erabili behar ez baduzu.



ERABILI MASKARA BERRERABILGARRI HOMOLOGATUAK

Lehen ere hondakin asko sortzen genituen, baina orain, Covid-19aren pandemia dela eta, beste produktu batzuk erabiltzen hasi gara, eta, ondorioz, baita hondakin gehiago sortzen ere: **eskularruak, maskarak, gel hidroalkoholikoak...**

Maskara erabiltzea nahitaezkoa da; hori dela eta, erabilitako maskaren hondakin asko ari gara sortzen. Hori horrela, ingurumenean dugun eragina murrizte aldera, **UNE 0065 arauaren bidez homologatutako maskara berrerabilgarriak** erabili behar ditugu.

Zer da UNE 0065 araua?

UNE 0065 espezifikazioak ezartzen du haur eta helduentzako maskara higieniko berrerabilgarriek gutxienezko zer baldintza bete behar dituzten, horiek egiteko erabiltzen diren materialei, josteko prozesuari, markari eta erabilerari dagokienez. Beraz, dokumentu horrek ahalbidetzen du maskara berrerabilgarrien behar adinako bolumena fabrikatzea –eskuz nahiz modu industrialean–, herritarrei koronabirusaren aurkako babes barrera bat emateko.

Maskaren etiketan jarri behar du araua betetzen dutela, eta, horrez gain, zehaztuta izan behar dute zenbat aldiz eta nola garbitu daitezkeen; izan ere, maskarak garbitzeko jarraibideak aldatu egiten dira fabrikatzaile bakoitzaren arabera. Dena den, oro har, **60 gradutik gorako** tenperaturan garbitu behar dira. Esan beharrik ez dago: produktua zenbat eta gehiago garbitzeko aukera ematen duen, orduan eta hobe.

Hemen dituzue Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak argitaratutako bi dokumentu interesgarritarako estekak:

- Herritarrentzako erabilera bakarreko produktuen kontsumoa murrizteko gomendioak.
- Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa deseskaladan.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO 2030 AGENDA TXERTATZEA GRAL-ETAN

Berri hau interesgarria izan daiteke **Gradu Amaierako Lana (GrAL)** aurten burutu behar duten laugarren mailako ikasleentzat.

UPV/EHUK GrALetarako prestakuntzarako eta gogoetarako espazio bat irekitzeko aukera eman nahi du, eta GrALa 2030 Agendaren, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuen (GIH) eta helburuok osatzen dituzten 169 erronken ezarpen-ildoetan txertatzeko tresnak eskaini nahi dizkizue. **GrALak 2030 Agenda erdiesteko tresna bat izan daitezen lortu nahi dugu horrela**, GIHak aurrerapen globaleko agenda bat baitira, eta harekin bat egiten joan behar dugu, planeta eraldatu eta bidezkoagoa, zuzenagoa eta iraunkorragoa bihurtzeko.

On line buruko den ikastaroa doakoa da eta 37,5 orduko iraupena du. Ikastaroa burutzen duenak 1,5 ECTS lortuko ditu.



Izen ematea eta informazio guztia:

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/garapen-iraunkorrerako-2030-agenda-txertatzea-gral>

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideiarekin bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.berdea@ehu.es